LARRABETZU UDALA

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

Esp. Zkia.-	OZ-2024-070
Esp. Elektr.	2024-00364

LARRABETZUKO BULEGO TEKNIKOAREN ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA AHOLKULARITZARAKO ZERBITZUA ESLEITZEKO, IRIZPIDE ANITZEKO PROZEDURA IREKI ARRUNTA ARAUTUKO DUTEN ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN PLEGUAREN KARATULA

A.- Kontratuaren objektua.

Plegu honen arabera burutuko den kontratuaren objektua Larrabetzuko udalari hirigintza arloan aholkularitza teknikoa ematea da, Administrazio-Baldintza Zehatzen Pleguan eta Baldintza Teknikoen Pleguan ezartzen diren betebeharrekin, bi horiek kontratuzko izaera dutelarik.

Aholkularitza zerbitzua emango duen pertsonaren lanak hurrengoak izango dira:

- Larrabetzuko udalean izapidetzen diren hirigintza-txostenei dagozkien txosten teknikoak egitea.
- Bulego teknikoaren eskumena diren kontuak landu ahal izateko, udaletxean zein bestelako erakundeetan, beharrezkoak diren bileretan parte hartzea.
- Udal korporazioari aholkularitza ematea udal-bulego teknikoaren eskumena diren gaietan.
- Hiritar eta erabiltzaileei izan ditzaketen kontsulta teknikoei buruzko arreta zerbitzua ematea.
- Udal-bulego teknikoaren jardunean sor daitezkeen bestelako kudeaketak egitea.

Kontratuaren objektuari dagokion CPV nomenklaturaren kodifikazioa: Arkitektura aholkularitza zerbitzua.- 71210000-3; eta, Hirigintza zerbitzuak.- 71410000-5

B.- Zerbitzu sustatzailea

Larrabetzuko Udala.

C.- Kontratazio organoa eta zuzendaritza.

Alkatetza

Askatasuna Enparantza, 1 48195 Larrabetzu (BIZKAIA)

Kontratazio mahaiaren osaketa.

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

Presidentea	Amaia Lekue Mezo, Udaleko Alkate-Presidentea.
Bokala 1	Izaskun Etxebarria Vadillo, Udaleko funtzionarioa
Bokala 2	Ortzi de la Quintana Ibáñez, Udaleko Idazkari Kontu-hartzailea.
Idazkaritza	Nerea Uriarte Iza, Udaleko funtzionarioa

D.- Lizitazio-oinarriaren aurrekontua eta kontratuaren balio zenbatetsia.

	ZENBATEKOA	BEZ	GUZTIRA
Lizitazio-oinarriaren aurrekontua	136.000,00 €	28.560,00 €	164.560,00 €
Kontratuaren balio zenbatetsia	136.000,00 €		

- Lizitazio-oinarriaren aurrekontua

  Kontratuaren lizitazio-oinarriaren aurrekontua EHUN ETA HIRUROGEITA LAU MILA BOSTEHN ETA HIRUROGEI EURO (164.560,00 €) da. Emaitza hori BERROGEITA BAT MILA EHUN ETA BERROGEI EURO (41.140,00 €/urteko BEZ barne) LAU (4) urteko kuotaren zenbatekoa gehitu ondoren lortzen da. Hurrengo eran zatitzen da:

Urteko prezioa (Zerga-oinarria)	34.000,00
BEZ 21%	7.140,00
Esleipen prezioa (Zerga-oinarria)	34.000,00 x 4= 136.000,00
BEZ 21%	28.560,00
TOTAL	164.560,00 EURO

- Kontratuaren balio zenbatetsia

  Kontratuaren balio zenbatetsia, egon litezkeen luzapen eta aldaketak kontutan hartuta, BEZ kenduta, EHUN ETA HOGEITA HAMASEI MILA EURO (136.000,00€) da.

Urteko prezioa (Zerga-oinarria)	34.000,00
Esleipen prezioa	34.000,00 x 4=

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

(Zerga-oinarria)	136.000,00
Luzapena	ez
Kontratu aldaketak	ez
TOTAL	136.000,00 EURO

Proposamen ekonomikoa BAZPen II. Eranskinean zehaztutakoaren arabera aurkeztuko da. Proposamen ekonomikoak eurotan egingo dira eta prezioak bi dezimalekin adieraziko dira. Proposamenean zehaztu beharko da, partida independente bezala, jasan beharko duen Balio Erantsiaren Zergaren zenbatekoa.

E.- Kontsignazioa aurrekontua

Badago aurrekontu-kreditu nahikorik kontrataziotik jaiotzen diren betebehar ekonomikoei aurre egiteko, 150-22707 aurrekontu-partidetan zorduntzeko.

Kreditua gordeko da kontratazioa dela bide sortzen den gastuari aurre egiteko; hori, bai eta aurretiazko fiskalizazioa nahiz onespena ere, behin kontratuaren esleipendun den eskaintzaren zenbatekoa ezagutzen denean egingo dira.

Udalak egingo du zerbitzu kontratu honen finantzazioaren %100.

F.- Urteak

2024 urtea
2025 urtea
2026 urtea
2027 urtea

G.- Izapidetza

Arrunta

H.- Prozedura eta esleipen forma

Irizpide anitzeko prozedura ireki arrunta

I.- Esleipen elektronikoko sistema

Derrigorrezko erabilera

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

J.- Esleipen irizpideak

Kontratuaren esleipena egiteko oinarria izango diren irizpideen balorazioa hurrengoa da, garrantzia eta eman zaien ponderazioaren arabera sailkatuak:

A.- Era automatikoan zenbatu daitezkeen irizpideak: 55 puntu arte.

1.- ESKAINTZA EKONOMIKOA: 35 PUNTU ARTE.

$$\mathrm{Pi} = \mathrm{Pmax}\sqrt[2]{\left[1 - \left(\frac{Bmax - EB}{Bmax}\right)^2\right]}$$

Pi = Lortuko den puntuazioa
Pmax = Lortu daitekeen gehieneko puntuazioa
Bmax = Gehieneko beherapena
EB = Baloratu behar den eskaintzaren beherapena

Lizitazioaren oinarrizko prezioaren % 15tik gorako baja duten eskaintzak neurriz kanpokoak izango dira. Hemen ezarritako irizpideen arabera neurrizko kanpoko eskaintza baxuren bat edo batzuk aurkeztuz gero, kontratazio-mahaiak (SPKLren 149. artikuluan ezarritakoaren arabera) egindako jaitsiera arrazoitu eta xehekatzeko eskatuko die neurrizko kanpoko eskaintza baxuan dauden lizitatzaileei. Kontratazio-mahaiak justifikatu beharko du neurrizko kanpoko eskaintza baxua baztertu edo onartu izana.

Enpresa lizitatzaile batek baino gehiagok berdintzen badabe, eskaintzak aurkezteko unean egoera honeetakoren batean (lehentasun-hurrenkeran) dagozan enpresek aurkeztutako proposamenak gailenduko dira:

a) Enpresa bakotxeko plantillan desgaitasuna daukien edo gizarte-bazterketako egoeran dagozan beharginen ehuneko handiena; bardintasunik badago, plantillan desgaitasuna daukien behargin finkoen kopuru handiena edo plantillan txertatuta dagozan beharginen kopuru handiena lehenetsiko da.
b) Aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena enpresa bakotxeko plantillan.
c) Enpresa bakotxeko plantillan emakume enplegatuen ehunekorik handiena.
d) Zozketea, aurreko irispideak aplikatuta bardinketa hautsi ez bada.

2.- GENERO IKUSPEGIAN ESPERIENTZIA: 10 PUNTU.

2 puntu emango dira hirigintza eta arkitektura aholkularitza teknikoaren arloan genero ikuspegiarekin egindako lan bakoitzagatik, gehienez 10 puntu arte.

Larrabetzuko Udalak genero ikuspegia duen hirigintza-plangintza izan nahi du, eta orokorrean, genero ikuspuntua duen hirigintza garatu nahi da ikuspuntu planifikatzaile batetatik eta arkitektonikotik ere bai. Hori guztia bat dator Berdintasun eta genero politikei buruzko arauetan zehaztutakoarekin (1/2023 Legegintzazko Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena).

Egoera horiek egiaztatzeko alegatutako lan hori burutu den sektore publikoko erakunde baten ziurtagiria aurkeztu beharko da. Ziurtagiriak beren-beregi adierazi behar du Larrabetzun zerbitzua emango duten pertsonak genero berdintasunerako lanak burutu dituztela.

3.- HIRITARREN PARTE-HARTZEAN ESPERIENTZIA: 10 PUNTU

Hirigintzarekin harremana duten gaietan hiritarren parte-hartze prozesuetan esperientzia izateagatik, 2 puntu emango dira gai horretan egindako lan bakoitzagatik eta gehienez 10 puntura arte.

Larrabetzuko herrian garrantzi handikoa izan da jendearen eta herritarren parte-hartzea. Hirigintza izan da gai honen inguruan jorratu den esparruetariko bat (Larrabetzuk hirigintzako herri kontseilua izan du). Herriaren ariman parte-hartzeak garrantzia izan du eta horregatik gai hau garrantzizkoa da. Jendearekiko jarraikako arreta zerbitzua kontratuaren objektua da eta zerbitzua ematen duen arkitektoak honetan esperientzia izateko betebeharra bermatu behar du.

Egoera horiek egiaztatzeko alegatutako lan hori burutu den sektore publikoko erakunde baten ziurtagiria aurkeztu beharko da. Ziurtagiriak beren-beregi adierazi behar du Larrabetzun zerbitzua emango duten pertsonak genero berdintasunerako lanak burutu dituztela.

<u>B. Era automatikoan zenbatu ezin diren irizpideak: 45 puntura arte.</u>

a) Larrabetzuko udalerriaren hirigintza-egoeraren azterketa: 25 puntu arte.
   Esparru honetan honakoak baloratuko dira:
   - Larrabetzuko Udalerriko hirigintza azterketa egin Larrabetzun indarrean dagoen HAPOk proposatutako ereduari jarraipena ematen.
   - Larrabetzuren egituraren gaineko informazioa izan: hirigintza ikuspuntutik zeintzuk plan eta plangintza ditugu indarrean. Honakoa kontuan izanik:
     - Planeamenduari dagokionez, Larrabetzuko Udalak 2017tik aurrera eta 2019an Testu Bateratua argitaratu eta gero indarrean dauka bere Hirigintza

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

Antolaketarako Plan Orokorra (HAPO). HAPO horrek 2022an aldaketa jaso du, behin betiko izaerarekin, Legina auzoko egoera legeztatzeko. Horrez gain, beste hiri HAPO aldaketa egiten ari dira:

- Behin betiko onartzeko dagoen aretxabalagane JIri dagokiona.
- Behin-behineko izaerarekin onartzeko dagoen 3.4. Jiren aldaketa.
- Hasierako dokumentua aurkeztuko duen baserrien zatiketarako HAPO aldaketa.
- Proiektaturik dagoen 1.2-3 Jiren gaineko HAPO aldaketa.

- Herriaren lurralde egiturari buruzko hausnarketa egitea.
- Zeintzuk sektore administrazio dute eragina Larrabetzuko Udalerrian? Zeintzuk dira horien lege aplikagarriak eta udal-hirigintzan izan dezaketen eragina?

Atal horrek 10 orrialde baino gehiago ez izatea gomendatzen da.

b) Lanerako metodologia proposamena: 20 puntu arte.
   - BTPan ezartzen den ordutegi eta iraupenaren kudeaketarako eredua zehaztu.
   - Larrabetzuko webgunean agertu beharreko hirigintza-informazioaren kudeaketa egitea eta horren garapena egitea.
   - Larrabetzuko udal-gobernuarekin harremantzeko sistema.
   - Larrabetzuko udal-jarduerarekin eta udal-antolakuntzarekin harremana.
   - Herritarrekin harremana.
   - Larrabetzutik kanpoko udalez gaineko administrazio eta erakundeekin harremantzeko malgutasunean oinarritutako eredua.

   Atal horrek 8 orrialde baino gehiago ez izatea gomendatzen da.

Atal honetan proposamenaren kalitatea hartuko da kontutan eta bereziki baloratuko da hura egiteko metodologia eta udalerrian dauden desberdintasun egoerak zuzentzeko proposatutako neurriak.

ERA AUTOMATIKOAN ZENBATU EZINEZKO IRIZPIDEEN BALORAZIOAN LORTU BEHARREKO GUTXIENEZKO PUNTUAK

SPKLren 146.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita, balorazio orokorrean onartuak izateko, pertsona eta enpresa lizitatzaileei eskatu egingo zaie era automatikoan edo formula bidez zenbatu ezinezko irizpideetan gutxieneko puntuazioa eskuratzea; eta beraz, Kontratazio mahaiak ez ditu kontutan hartuko irizpide subjektiboen atalean gutxienez 20 puntu lortzen ez dituen pertsona edo enpresa lizitatzaileen proposamenak.

K. Behin-behineko bermea

Ez da eskatuko.

L. Behin-betiko bermea

Esleipen zenbatekoaren %5, BEZ kenduta.

LL. Prezioen berrikuskapena

Ez dagokio

M. Aldaerak baimentzea

Ez dira aldaketak onartuko.

N. Betearazpen epea/entrega

Kontratuaren betearazpen epea LAU (4) urtekoa izango da, kontratua formalizatzen den hurrengo lan-egunetik aurrera zenbatuta.

Ñ. Luzapen aukera

Ez

O. Betearazpen lekua

Larrabetzuko Udala.

P. Bermea eta jasotzeko epea.

Bermearen epea bi hilabetekoa izango da, haren jasotze formaletik aurrera.

Q. Proposamenak aurkezteko epea

Epea **21 egun naturalekoa** da, esleitze iragarkia kontratazioaren profilean (Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman) argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

R. Proposamenak aurkezteko lekua.

Larrabetzuko Udaleko lizitazio plataforma.

Proposamenak aurkezteko forma. Hiru gutun-azal elektroniko aurkeztuko dira.

A GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- Erantzukizuneko deklarazioa (DEUC) –aurretiazko irizpideak-.
B GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- Automatikoki baloratu ezin daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa –aurretiazko ebaluaketa-.

C GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- Automatikoki baloratu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa –ondorengo ebaluaketa-.

Gutun-azal bakoitzaren barnean adierazi beharko da, orrialde independente batean, dauden dokumentuen zenbakizko erlazio bat (aurkibidea)

Proposamenen edukia

A GUTUN-AZALA. ERANTZUKIZUNPEKO DEKLARAZIOA. Gutun-azal honek hurrengo dokumentazioa jasoko du:

1. BAZPen I. eranskinarekin bat eginez kontratatzeko baldintzak bete egiten direnaren erantzukizunpeko deklarazioa (DEUC)

Plegu honek eta legeak exijitzen dituen baldintzak bete diren ikusteko unea proposamenak aurkezteko azken eguna izango da.

B GUTUN-AZALA: AUTOMATIKOKI ZENBATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK

Gutun-azal honetan sartuko dira irizpide subjektiboak baloratu eta zenbatu ahal izateko derrigorrezko dokumentazioa, plegu honen karatularen I.2 atalean zehazten diren irizpide subjektibo edo ez-automatikoekin erlazioa dutenak

C GUTUN-AZALA: ERA AUTOMATIKOAN ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK

C gutun-azalaren barruan sartuko da proposamen ekonomikoa II. Eranskinean xedatutakoarekin bat eginda.

S. Publizitate gastuak

Pertsona edo enpresa kontratistaren kontura izango dira Aldizkari Ofizialetan, zein egunkarietan edota bestelako hedabideetan lizitazioaren publikazioaren ondorioz sor daitezkeen gastuak, 300 euroko gehienezko zenbatekoa arte.

T. Gaitasuna, derrigorrezko enpresari edo profesional gaikuntza eta kaudimena. (Dokumentazio administratiboa).

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

T1. Gaitasuna.

BAZPen ezarritakoaren arabera.

T2. Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, teknikoa eta profesionala.

1.- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa honako baliabide baten edo batzuen bidez egiaztatu ahalko da:

- Negozioen urteko bolumena kontratuari jagokon eremuan, lizitazio-iragarkian edo prozeduran parte hartzeko konbitean eta kontratuaren baldintza-agirietan exijiduten dan zenbateko berean edo handiagoan.

- Arrisku profesionalakaitik kalte-ordainaren asegurua dagoalako frogagiria, lizitazio-iragarkian edo prozeduran parte hartzeko konbitean eta kontratuaren baldintza-agirietan exijiduten dan zenbateko berean edo handiagoan.

2.- Kaudimen tekniko edo profesionala:

BAZPen ezarritakoaren arabera.

U. Kontratazio profila

www.Larrabetzu.eus

V. Bestelako zehaztasunak

Pertsona edo enpresa kontratistaren laneko betebeharrak.

Kontratuaren exekuziora lotuko den pertsonala enpresa esleipendunaren menpe egongo dira soilik. Horrek enpresari bezala dagozkion eskubide eta betebehar guztiak izango ditu eta lan-araudi, gizarte-segurantza eta laneko segurtasun eta higienea eta arriskuen prebentziorako araudian ezarritako eta indarrean dauden baldintza guztiak bete beharko ditu; era berean, bere menpeko langileriatik eratorritako tributu zein obligazio fiskalak bete beharko ditu, eta Udala enpresa edota pertsona kontratista eta bere pertsonalaren arteko erlaziotik salbuetsita geratuko da.

Lizitatzaileek kontratuaren objektuaren jarduera burutzen duten langileei aplikatuko zaien lan-hitzarmenari buruzko erantzukizunpeko deklarazioa aurkeztuko dute, eta kontratua

esleitu ondoren, langile horiei ezartzen zaizkien lan-baldintzei buruzko edozein informazio jakinaraziko diote udalari hala eskatzen zaionean enpresariari.

Entitate esleipendunak, kontratuaren betearazpena ematen den artean, aplikagarri den lan-hitzarmenean zehaztutako soldata ordaindu beharko du langilearen kategoria profesionalari dagokiona, ezin izango delarik lan-hitzarmenak zehaztutako soldata baino baxuagorik ezarri.

Enpresa esleipenduna ordainketa egokia egiteko konpromisoa hartuko du, eta modu zuzenean jasango du, udaletxeari ezin izango diolarik inolako kasutan trasladatu, lan baldintza edo soldatetan ematen den edozein hobekuntzaren kostua, hala hobekuntza hori lan-hitzarmen, paktu zein edozein akordiotik eratorria izan, nola beste edozein inguruabarretik eratorria izan.

Enpresa edo pertsona kontratista lan arloko jurisdikzioaren aurrean erantzule izango da bere menpeko langileek dagozkien funtzioak egiterakoan izan ditzaketen istripuen gainean. Zentzu horretan, enpresa edo pertsona kontratista bere menpeko pertsonalari beharrezkoak diren segurtasun neurriak ezarri beharko dizkie, eta lan osasun eta segurtasunaren atalean aplikagarri diren xedapenak bete beharko ditu.

Zerbitzu kontratua amaitzean ezingo da eman kontratuaren objektu diren lanak egin dituzten pertsonen kontsolidaziorik administrazio kontratugilearen pertsonal bezala.

<u>Kontratuzko oinarrizko obligazioak.</u>

Lan arlokoak: enpresa edo pertsona kontratistaren obligazioak gizarte segurantzan langileak altan eta bajan emateari buruzko arloan, eta dagozkien kategoria profesional eta hitzarmen kolektiboaren araberako soldatak eta kotizazioak ordaintzeari burukoak.

Bestelakoak: zerbitzua eman ahal izateko beharrezkoak diren medio pertsonal eta materialak atxikitzea.

<u>Kontratuaren betearazpen baldintza bereziak.</u>

- Lan arloko baldintzak

- Kontratuak derrigorrez bete beharko ditu lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden eta aplikagarri diren legezko, arauzko eta hitzarmenezko xedapenak.

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

• Kontratu honetan parte hartzen duten langileak indarrean dagoen sektoreko hitzarmen kolektiboaren eraentzepean jardungo dira.

• Gainera, zerbitzuan parte hartzen duten pertsona guztiek sexuzko izaera duten aurrekari penalen ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

• Enpresa esleipendunek erantzukizun zibileko asegurua eduki beharko dute indarrean gerta daitezkeen ezbeharrei erantzuteko.

• Subrogatzeko obligazioa: Gaur egun zerbitzua ematen duten langileak (IV. eranskina) subrogatzeko betebeharra du enpresa esleipendunak, sektorean aplikagarri den hitzarmen kolektiboaren 54. artikuluak adierazi bezala.

- Berdintasun klausulak

• Enpresa esleipendunak emakume eta gizonen arteko tratuan, enplegurako sarreran, klasifikazio profesionalean, formakuntza, soldatak etab.etan aukera berdintasuna bermatuko du.

• Era berean, enpresa esleipendunek haurrekiko hizkuntza eta komunikazioan, zein administrazioarekin mantentzen duen komunikazioan hizkera ez-sexista erabiltzen duela bermatuko dute.

• Ez dira erabiliko emakumearen irudi diskriminatzaile edota estereotipatuak agertzen dituzten dokumentazio eta materialik; eta, sustatuko dira berdintasuna, aniztasuna, pluraltasuna eta erantzunkidetasunaren aldeko baloreak

- Hizkuntza betebeharrak

• Kontratuaren zerbitzu hizkuntza: Kontratu honen xede diren prestazioaren berezko ezaugarriak direla-eta kontratuaren zerbitzu hizkuntza nagusia euskara izango da, beraz, erabiltzaileekin harremana euskaraz izango da eta euskaraz izatea sustatuko da.

• Udalarekin harremana: kontratu honen bidez sortzen diren ahozko zein idatzizko komunikazio mota guztiak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsultak...) euskaraz izango dira.

• 3.Hizkuntza gaitasuna: administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar

lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez.

- Horrela, bada, zerbitzuan parte hartuko duten langile guztiek Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila egiaztatu beharko dute

- Hizkuntza paisaia: errotuluak, oharrak, materialak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez edo eta euskaraz egingo dira.

Klausula honetako baldintzak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira, SPKLaren ondorioetarako. Hortaz, baldintzak betetzen ez badira, kontratua bertan behera gelditu ahal izango da, lege horren 223.g) artikuluaren arabera.

Ordaintzeko modua.

Prezioaren ordainketa BAZPen zehaztutakoaren arabera egingo da eta bankuko transferentzia bidez.

Pertsona edo enpresa kontratista derrigortua dago formatu elektronikoa erabiltzen. fakturak jaulki eta igortzeko. Faktura elektronikoek e-factur, 3.2 bertsioan ezarritako formatuarekin bat egingo dute, eta ziurtagiri balioztatu batean oinarritutako sinadura elektroniko aurreratu batekin sinatuko dira.

Pertsona edo enpresa kontratistak faktura elektronikoa aurkeztuko du Larrabetzuko udaleko web orrialdean dagoen Faktura Elektronikoen Sarrera Puntu Orokorraren bitartez.

Organo hartzaileari faktura era egokian igorri ahal izateko, adieraziko da:

Kontabilitate publikoaren organo eskuduna: Kontu-hartzailetza.
Kontratazio organoa: Alkatetza
Fakturaren organo hartzailea: Idazkaritza-kontuhartzailetza.

Kontratua suntsiarazteko kausa zehatzak dira:

- Eskaintzan zehaztutako baldintzak eta kontratuaren objektua den prestazioa ez-betetzea edo gaizki betetzea.
- Pleguetan oinarrizkotzat jotako kontratuzko-obligazioen ez-betetzea.